



DONOSTIAKO HONDARTZEN IKS-AREN (EMAS IV) 2022. URTEKO INGURUMEN-ADIERAZPENA

2023KO EKAINA



**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**

DONOSTIAKO HONDARTZEN INGURUMEN- KUDEAKETAKO SISTEMA

- 1 DATU OROKORRAK**
 - 1.1 Aurkezpena
 - 1.2 Testuingurua eta arriskuen eta aukeren analisia
 - 1.3 Estrategia
 - 1.4 IKSaren irismea
 - 1.5 Ingurumen kudeaketako sistemaren (IKS) arduradunak
 - 1.6 Politika
 - 1.7 IKSaren deskribapena
 - 1.8 Aurrekontu-partidak
 - 1.9 2022ko ingurumen-alderdi esanguratsuenak
- 2 INGURUMEN PORTAERA ETA PLANIFIKAZIOA EREMUKA**
 - 2.1 Hondakinak
 - 2.2 Ura
 - 2.3 Energia
 - 2.4 Ingurumen-informazioa
 - 2.5 Ingurumen-portaera: bainurako uren kalitatea
 - 2.6 IKSaren hobekuntzak
- 3 LEGEZKO BETEKIZUNAK ETA HONDARTZEN IKS-ARI APLIKATZEKOAK ZAIZKION BESTE BATZUK**
- 4 ERANSKINAK**
 - 4.1 Ingurumen-alderdiak identifikatzeko eta ebaluatzeko metodoa
 - 4.2 Adierazleak kalkulatzeko alderdi metodologikoak
 - 4.3 Ingurumen-portaeraren beste adierazle batzuk
 - 4.4 2023. urteko programa
- 5 ERAKUNDEAREKIN LOTUTAKO BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK**
- 6 INGURUMEN-EGIAZTATZAILEAREN IZENA ETA ZENBAKIA ETA EGIAZTAPEN-DATA.**

1.- INGURUMEN-KUDEAKETAKO SISTEMA: DATU OROKORRAK

1.1. AURKEZPENA

Donostiak lau hondartza ditu: Zurriola, Kontxa eta Ondarreta, handienak eta ezagunenak, eta Santa Klara uharteko hondartza txikia, itsasbeheran eratzen dena.

Hondartza bakoitzak bere ezaugarriak eta erabiltzaileak ditu. Kontxako eta Ondarretako hondartzetan ibiltzen den jendea askotarikoagoa da; Zurriolan, berriz, publiko gaztea ibiltzen da gehienbat, hondartzako kirolen maitalea.

Bestalde, hirietako hondartzak dira, jende asko biltzen dutenak; beraz, zerbitzu eta ekipamendu ugari eman behar zaizkie.

Kontuan hartuta hondartzak babestu beharreko baliabide natural eta ekonomikoak direla, kutsadura prebenitzearen alde eta hondartzetako zerbitzu eta jardueren eta horien erabiltzaileen ingurumen-portaera hobetzearen alde egin zen.

Helburu horiekin, Udaleko zerbitzu teknikoak 2000. urtean hasi ziren Ingurumena Kudeaketako Sistema (IKS) ezartzen, ISO 14001 nazioarteko arauaren irizpideei jarraituz. Ondoren, 2003an, IKSa EMAS erregistroan inskribatu zen, eta, horretarako, sistema osoa Europako erregelamendu horren eskakizunetara egokitu zen.

Dokumentu hau Donostiako Udaleko Zerbitzu Teknikoek hondartzen (Ondarreta, Kontxa, Zurriola eta Santa Klara uharteko hondartza) IKS integralari buruz argitaratzen duten ingurumen-adierazpena da.

Donostiako Udalak adierazpen hori jendearen eskura jartzen du, webgunean, bulegoetan eta hondartzetako kabinetan:

Webgunea:

<https://www.donostia.eus/ServiciosEspeciales/Playas.nsf/medioambientec?ReadForm&idioma=eus>

Hiri Mantentze eta Zerbitzuak (Hondartza Zerbitzua)

- Easo kalea, 43, 20006 Donostia (Gipuzkoa)
- Tel.: 943 481093
- email.: joseramon_renilla@donostia.eus
- Kontakturako pertsona: Jose Ramon Renilla

Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzua

- Mandasko Dukearen pasealekua, 66, 20012 Donostia (Gipuzkoa)
- Tel.: 943 483390
- emaila: ingurumena@donostia.eus
- Kontakturako pertsonak: Alaitz Iraola/ Asun Yarzabal.

NACE kodea: 8411

1.2. TESTUINGURUA:

Donostiako hondartzen ingurumen-kudeaketako sistemak ISO 14001 ziurtagiria du 2001etik, eta EMASarena 2003tik. Araudi horiek berrikusi eta aldatu egin dira, eta gure IKSak jakin du eskatutako baldintza berrietara egokitzen. ISO 14001:2015 araudia eta EMAS IV* berria argitaratu ondoren, gure IKSak bi sistemen azken baldintzak betetzen ditu.

* EMAS: 1221/2009 Erregelamendua, 1505/2017 Erregelamendua eta 2016/2018 Erregelamendua

Donostiako Udala, ingurumenaren arloan behintzat, hainbat proiektu, plan eta estrategiatan murgilduta dago, eta etorkizunean izango diren ingurumen-arazo eta -erronkei aurre egiten saiatuko da, bai tokian-tokian, bai mundu osoan:




- DSS Klima 2050: klima-aldaketaren aurkako epe luzerako estrategia diseinatzen duen proiektua, udalerraren helburuak Parisko goi-bilerarekin lerrotzea lortzen duena. Udalaren proiektu estrategikorik berriena da, eta oso interesgarria iruditzen zaigu hondartzen eremura eramatea.
- Klima-aldaketara egokitzeko plana: ikusirik zientifikoki egiaztatu dela klima-aldaketaren inpaktuak saihetsezinak direla eta nazioarteko komunitateak hala aitortzen duela, azken urteotan nabarmen bultzatzen ari dira aldaketa horretara egokitzeko politikak, bai eta haren ondorioei erantzuteko modua planifikatzen ere.
- Eusko Jaurlaritzaren 2030erako Kontratazio Berdearen Programari atxikitzea. Programa horren bidez, Udalak hitzematzen du erosketara eta kontratazio publikoko baldintza-agirietan ingurumen-irizpideak txertatzean hainbat helburu beteko dituela 2025erako eta 2030erako.

1.3. ESTRATEGIA:

IKSaren zuzendaritzak uste du badirela zenbait alderdi funtsezkoak direnak eta horiek izan behar dutela estrategia berriaren zutabe, IKSaren helburuen oinarri:

- A Donostiako Klima 2050 ekintza-plana: kontuan hartuta estrategia hori hiriari zuzenduta dagoela, oso landua eta hausnartua dagoela eta guztiz bat datorrela IKSak klima-aldaketari aurre egiteko eta egokitzeko dituen beharrekin, uste dugu aprobetxatu egin behar dugula hiriarentzat egindako lan hori guztia, hondartzok ere hiriaren parte baitira, eta Klima 2050en helburuak guztiz aplikagarriak baitira hondartzen eremuan ere.
- B Herritarrekiko komunikazioa: hondartzetako ingurumen-ziurtagirien balioa nabarmentzea (EMAS eta ISO 14001) eta ingurumenaren inguruan sentsibilizatzea. Komunikazioa aukera bat izan daiteke IKSari balioa emateko, hondartzen prestigioa hobetzeko eta erabiltzaileek hondartzetan egiten diren aldaketen edo jarduketan aurrean jarrera positiboagoa izateko.

Beraz, Donostiako hondartzen **IKSak helburu** hauek izango ditu:

	Hondartzetako energia-kontsumoaren berotegi-efektuko gasen isuriak % 40 murriztea 2030ean, 2017arekin alderatuta.	DSS 2050 Klima Planeko E.1 helburua lortzen laguntzen du.
	2030ean hondartzetako hondakinen % 80 gaika biltzea.	DSS 2050 Klima Planeko EZ.2 helburua lortzen laguntzen du.
	Herritarrekiko komunikazioa: hondartzen ingurumen-ziurtagirien balioa nabarmentzea (EMAS eta ISO 14001) eta ingurumen-arloan sentsibilizatzea.	


1.4. IKS-AREN IRISMENA

IKS Ingurumen Kudeaketako Sistemak hondartzetan egiten eta kokatzen diren jarduera guztiak biltzen ditu, hau da:

- Hondartzen garbiketa eta badiako ur gaineko hondakinen bilketa (FCC)
- Kabinetako garbiketa eta arreta (Galant)
- Sorospena eta salbamendua (BPXport)
- Ondarreta eta Zurriolako igerilekuak
- Ondarreta eta Zurriolako igerilekuak
- Instalazio orokor guztien mantentzea
- Bainatzeko uren eta hondartza-ingurunearen osasun- eta ingurumen-kontrola
- Tabernak:
 - . Ondarreta: bi kiosko hondarretan
 - . Kontxa: hegaleko 1 eta 2 tabernak
 - . Zurriola: Tintin taberna eta hondarreko kioskoa

Zerbitzu horiek, dagozkien prozesuen bidez, hainbat enpresari adjudikatu zaizkie, eta enpresa horiek egiten dute jarduera, baina lan horien kontrola eta jarraipena udalak egiten du.

Argazkian, IKSa zer esparru fisikori aplikatzen zaion ikus daiteke:



Esan liteke 2022ko uda lehen uda «normala» izan dela SARS-COV-2 pandemiaren ondoren. Aurreko uda-sasoietan, 2020. eta 2021. urteetan, zerbitzu eta jarduera batzuk eskaintzeari utzi zitzaion, eta hondartzak erabiltzeko arau ugari ezarri ziren. Horrek guztiak asko baldintzatu zuen hondartzetako ingurumen-portaera. Horregatik, 2022an lortutako datuak 2019koarekin alderatuko dira, urte hori erreferentzia errealagoa baita.

1.5. INGURUMEN KUDEAKETAKO SISTEMAREN ARDURADUNAK


Donostiako Udala, hiri-zerbitzuen bidez, hondartzetako udal-zerbitzuak kudeatzeaz eta garatzeaz arduratzen da, besteak beste.

Bestalde, Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuko Bioaniztasunaren eta Ingurumen Kalitatearen Atalak hondartzen osasun-ingurumena kontrolatzen du (bainatzeko urak eta hondartza inguruko eremua), bai eta IKSa kudeatu eta sustatzen ere.

Azpirarratu behar da hondartza gaineko azken lanak, kasu gehienetan, lehiaketa bidez aukeratu diren enpresek egiten dituztela. Hala, kanpoko langileek egindako zerbitzu nagusien artean, honako hauek ditugu:

- Hondakin bilketa: FCC
- Kabinen arreta eta garbiketa: Galant
- Sorospena eta salbamendua: BPXport

Hau da udal-organigrama, gai honetan esku hartzen duten zerbitzuei dagokienez:



1.6. POLITIKA

HONDARTZEN INGURUMEN-POLITIKA

Donostiako Udalak, tokiko erakunde publiko gisa, bere jarduera gizartearen garapen jasagarria bermatzeko moduan gauzatzeko, Donostiako hondartzetako ingurumen-portaera hobetzeko konpromisoa hartzen du.

Horretarako, Donostiako Udalak, hondartzen kudeaketari dagokionez, helburu nagusi hauek izango ditu:

- Une oro hondartzen kudeaketari aplika dakizkiokeen erregelamenduzko ingurumen-baldintzak eta bestelakoak betetzen direla ziurtatzea.
- Helburu batzuk ezartzea eta behar diren baliabideak jartzea, aldizka berrikusi eta eguneratuta, haien ingurumen-portaera etengabe hobetu eta kutsadura prebenituko dela ziurtatzeko.

- Hondartza-ingurune segurua bermatzea, osasun-agintariak koronabirusaren edo SARS-COV-2ren aurkako borrokan ezarritako jarraibideak betez eta betearaziz.
- Hondartzetan egindako jarduera guztien ingurumen-alderdiak zuzenean edo adjudikaziodunen bidez integratzea, ingurumen-inpaktuak hobetzeko eta murrizteko faktore garrantzitsu gisa.
- Baliabide naturalak aurrezteko modua bilatzea, erabiltzaileak sentsibilizatuz, ura zentzuz erabil dezaten, eta hondartzetako hondakinen gaikako bilketa sustatuz.
- Prestakuntza- eta komunikazio-plan egokiak ezartzea, Udaleko langileek eta hondartzekin zerikusia duten enpresa adjudikaziodunek erakundearen politika, helburu eta betebeharrei buruzko informazioa dutela eta horiek ulertzen dituztela bermatzeko, betiere printzipio honen arabera: langile eta kontratista oro dela ingurumen-gaien erantzule, egiten duen jardueraren parte gisa.
- Hondartzetako erabiltzaileekin komunikatzeko bideak hobetzea, kanpainen, webgunearen, postontzien eta egokitzaletan jotzen diren gainerako baliabideen bidez.

Ingurumen-politika hau Donostiako hondartzetako jarduera eta zerbitzu guztiei aplikatuko zaie, funtzionamendua normala zein anormala denean eta larrialdi-egoeretan.



1.7. IKS-AREN DESKRIBAPENA

Udalak uste du IKSa tresna egokia dela hondartzetako zerbitzuen funtzionamendu egokia ziurtatzeko, bai eta legeria betetzen dela eta ingurune horretan eskaintzen den zerbitzu bakoitza, bere eremuan, IKSaren ingurumen-politikan ezarritakora egokitzen dela bermatzeko ere.

IKSak barne hartzen ditu antolamendu-egitura bat, erantzukizunen definizioa, eskuliburu bat (prozedurak, jarraibideak eta erregistroak) dokumentazioa garatzeko oinarri gisa balio duena eta prozeduren eta jarraibideen ezarpen eraginkorra.

Honako dokumentu hauek osatzen dute IKSa:

- Ingurumen-politika
- Ingurumen-kudeaketako eskuliburua
- Prozedurak
- Jarraibideak
- Erregistroak

1.8. AURREKONTU-PARTIDAK

Udalaren Hiri Zerbitzuetako hondartzetako programaren behin betiko aurrekontua honako hau izan da, urtez urte:

	Hondartzetako aurrekontua	Udalaren aurrekontua	%
2017. urtea	2.167.158,05 €	335.735.364,66 €	0,65
2018. urtea	2.534.468,69 €	343.461.980,60 €	0,74
2019. urtea	3.140.251,48 €	358.184.580,60 €	0,88
2020. urtea	3.253.704,00 €	352.585.234,00 €	0,92
2021. urtea	2.931.830,00 €	341.887.279,00 €	0,86
2022. urtea	3.101.096,00 €	362.244.163,00 €	0,86
2023. urtea	3.465.048,00 €	394.188.069,00 €	0,88



1.9. 2022. URTEKO INGURUMEN-ALDERDI ESANGURATSUAK

IKSk badu metodo bat ingurumen-inpaktua zerk izan dezakeen detektatzeko (energia-kontsumoa, hondakinen gaikako bilketa, ur-kontsumoa), eta, horren bidez, elementu horiek urte bakoitzean zer emaitza izango duten ebaluatu eta puntuatzen da. Amaitutako urteko (kasu honetan 2022ko) portaeraren arabera, ondorioztatzen da horietako zein joko diren ingurumenaren aldetik "esanguratsutzat", hau da, non jarri behar den fokua haren portaera hobetzeko eta ezarritako helburua lortzeko. 2030erako birziklatze-tasa areagotzeko eta CO2 isuriak murrizteko helburu batzuk ezarri dira, eta, helburu horiek lortzen ez diren bitartean, esanguratsutzat joko dira, haietan eragiteko eta hobekuntza-ekintzak programatzeko

2022. urteko datuak aztertu eta 2019koekin alderatu ondoren, hainbat alderdi esanguratsu ikusi dira: erabiltzaileko uraren kontsumoa kanpoko dutxetan udan, erabiltzaileko uraren kontsumoa kabinetan udan.

2023. programak honako ekintza hauek biltzen ditu: Zurriola hondartzako ZM eraikinean kabinetako eta komunetako autokontsumorako plaka fotovoltaikoak instalatzeko proiektua; Kontxako kabinak eraberritzeko obrak, zeinen barruan sartuko baitira ur-bideratzeen isolamendua hobetzeko jarduketak; ITSASOS kanpaina, hiriko hondakinei buruzkoa, hondartzak ere eremu garrantzitsu gisa sartuko dituen (kartelak, Dbuseko pantailak eta abar); horren barruan, ekaintza

hauek egingo dira: Kerik gabeko hondartzak: hiriko hondartzetan ez erretzeko gomendioa (ez erretzeko gomendioari buruzko seinaleak jartzea), hondartzetan ITSASOS kanpainari buruzko kartel berriak jartzea, ITSASOS kanpainari buruzko bideo laburra ematea Dbusen pantailetan, euri-uren sarean kartelak bertan egotea Itsasoa iaz jarri zen hemen. Finalmente, como todos los años, se colocará la bandera EMAS en el mastil de la entrada principal de la playa de la Concha.



2.- INGURUMEN-PORTAERA: ARLOKAKO PLANGINTZA

Hona hemen ingurumen-alderdi nagusiei buruzko informazioa:

- Azken urteetako portaera eta ingurumen-inpaktua.
- 2020ko programan hartutako neurrien betetze-maila eta lortutako emaitzak, programa onestean hautemandako ingurumen-alderdi esanguratsuei dagokienez.

2.1.- HONDAKINAK

Hondartzetan bildutako hondakinak dira, bai itsasoak ekarritakoak, bai erabiltzaileek bertan behera utzitakoak, bai hondartzako mantentze-lanetan eta jardueretan sortutakoak.

Hauek dira hondakin horiei buruzko datu banakatuak:

- Gaika bildutako hondakinak: papera, beira, ontziak, materia organikoa eta egurra.
- Hondakin arriskutsuak: instalazioen mantentze-lanetan sortuak (pintura erabilien ontziak eta hondarrak, ibilgailuen olioak, bateriak). Hondakin horiek baimendutako kudeatzaileei ematen zaizkie.
- Lohiak: kabinetako hondakin-urak ponpatzeko estazioak garbitzean sortzen dira.
- Gaika bildu gabeko hondakinak: errefusa. Harea garbitzean bildutako hondakinak eta zakarrontzietara botatutakoak barne.

Itsasoak ekarritako zura gaika biltzen da, eta balorizazio energetikorako erabiltzen. Frakzio hori guztizko hondakinen eta gaikako bilketaren grafikoetan sartzten da, horrela hobeto islatzen baita Udalak hondartzetara iristen diren hondakinak hobeto kudeatzeko egindako ahalegina, zaborte-gira ahalik eta gutxien eramatekoa. Nabarmendu behar da, hala ere, zur-frakzioak fluktuazio handiak dituela, klimatologiaren arabera, eta, ondorioz, hondakinen guztizko bolumena ere aldatu egiten dela.



Hondartzek 2022an ingurumen-portaera bikaina izan dute hondakinei dagokienez; izan ere, birziklatze-tasa 2019koa halako ia bi izan da (% 36tik % 60ra), eta sortutako hondakinen guztizkoa erdira baino gehiagora jaitzi da (urtean 59 g-tik 21,7 g-ra, hondartzazale bakoitzeko).

2022ko denboraldian hondartzetan hondakinak prebenitzeko egindako jarduketak ugariak emaitza ona izan dute: ITSASOS kanpainaren barruan hainbat ekintza egin dira, hala nola hiriko hondartzetan ez erretzeko gomendioa egitea; zigarrokinak eta hondakin txikiak uzteko kukurutxo berrerabilgarriak erabiltzea; euri-uren estoldetan «Itsasoa hemen hasten da» kartelak jartzea euri-uren estolda-sarearen bidez hondakin txikiak itsasora iristea


saihesteko; hondakinen prebentzioari eta kudeaketari buruz sentsibilizatzea monitoreen bidez; eta ITSASOS kanpainari buruzko kartelak jartzea hondartzetan. Hala ere, esan behar da 2021ean aldatu edo hobetu egin zela hondakinen frakzio bakoitzeko poltsen pisua zenbatesteko metodoa: langileek, poltsak zenbatzeaz gain, poltsa bakoitza zenbateraino beteta zegoen adierazten dute, horretarako sortutako aplikazio batean. Metodo berri horri esker, hondakinen kopurua hobeto kalkula daiteke, eta izan ere, askoz ere txikiagoa izan da frakzio guztietan. Horrek eragin nabarmena izan du zakarroentzietako errefus-hondakinen kantitatean (hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala); askoz txikiagoa izan denez, birziklatze-tasaren balioa handitu egin da, eta sortutako hondakinen guztizko kopurua murriztu.

- Hondarretako zakarroentzietako birziklatze-tasa areagotzea:



Horrez gain, kontuan izan behar da datuak 2019. urtekoekin alderatzen ari garela eta, beraz, emaitzen hobekuntza hori azken hiru urtean egindako ekintza guztien ondorio dela. COVID-19aren ondorioz, hondartza-zerbitzu asko kendu ziren, eta erabilera murrizteko arau ugari aplikatu; hala ere, programetan hondakinen prebentziorako jasota zeuden ekintza gehienak gauzatu ahal izan ziren.

- Murriztu egin da hondartzetan bildutako hondakinen guztizko kantitatea (gaikakoa zein ez-gaikakoa), udan hondartzazale bakoitzeko kalkulatu:



HONDAKINEN INGURUMEN-INPAKTUA

Hondartzetan sortutako hondakinek ingurumenean dituzten inpaktu nagusiak honako hauek dira:

- Lehengaien kontsumoa
- Hondakinak bildu eta kudeatzetik eratorritakoak: garraioa, lursailaren okupazioa amaierako helmugan, paisaiaren narriadura, usainak eta abar.
- Izaki bizidunei eragindako afekzioak: hegaztiak, zetazeoak eta plastikozko hondakinak irensten dituzten beste animalia batzuk; batzuetan, zuzenean edo zeharka, heriotza ere eragiten baitzaie izaki bizidunei.



HONDAKINEN ARLOAN 2022RAKO AURREIKUSITAKO HELBURUAK

2022ko programan honako helburu, jomuga eta ekintza hauek sartu ziren:

- 2. helburua: Hondartzetan hondakinen gaikako bilketa areagotzea.

2.1 xedea: Zakarrontzietako birziklatze-tasa % 5 handitzea, gutxienez, 2019. urtearekin alderatuta (2020ko eta 2021eko datuak ez dia erabili erreferentzia gisa). Helburu hori betetzeko ekintza hauek programatu ziren:

2.1.1. ITSASOS kanpaina, hiriko hondakinei buruzkoa. Haren barruan, hondartzak eremu garrantzitsu gisa sartu dira, bai eta hainbat ekintza bildu ere:

2.1.1.1. Kerik gabeko hondartzak: hiriko hondartzetan ez erretzeko gomendioa egitea.

2.1.1.2. Kukurutxo berrerabilgarriak erabiltzea zigarrokinak eta hondakin txikiak botatzeko, horiek hondarretan amai ez dezaten.

2.1.1.3. Euri-uren estoldetan «Itsasoa hemen hasten da» kartelak jartzea, euri-uren saretik hondakin txikirik ez sartzeko.

2.1.1.4. Hondakinen prebentzioari eta kudeaketari buruz sentsibilizatzea, monitoreen bidez.

2.1.1.5. Hondartzetan ITSASOS kanpainari buruzko kartelak jartzea.

2022KO LORPENAK HONDAKINEN ARLOAN

Programatutako ekintza guztiak egin dira. Dena den, zakarrontzietako birziklatze-tasa % 66 baino gehiago areagotu da, eta igoera horretan zerikusia izan dute, bai erabiltzaileek portaera hobea izatea, bai hondakinen poltsen pisua zenbatesteko metodo berria aplikatzeak:

Helburua: Zakarrontzietako birziklatze-tasa gutxienez %15 handitzea			
2019	2022	bilakaera	Bete da?
%36,6	%60,8	+%66,12	Bai

2030erako zakarrontzietako birziklatze-tasa %80koa izateko epe luzeko helburuari dagokionez, esan daiteke bilakaera oso ona dela: 2017an tasa %22,6 zen, eta ordutik %60,8ra igo da.

2023. URTERAKO PROGRAMAZIOA

- 2. helburua: hondartzetan hondakinen gaikako bilketa areagotzea.

2.1 xedea: Zakarrontzietako birziklatze-tasa %5 handitzea, gutxienez, 2019ko datuekin alderatuta. Helburu hau betetzeko programatzen diren ekintzak honako hauek dira:

2.1.1. Hiriko hondakinei buruzko ITSASOS kanpaina, zeinean hondartzak eremu garrantzitsu gisa sartuko baitira (hondakinei buruzko kartelak, Dbus pantailetak bideo laburrak, «Hemen itsasoa hasten da» plakak mantentzea, eta abar)

2.1.2. Kerik gabeko hondartzak: Hiriko hondartzetan ez erretzeko gomendioa. Seinaleak ere jarriko dira (ITSASOS kanpainaren barruan).

2.- URA

Ur-kontsumoa kanpoko dutxetan (harea) eta oin-garbigailuetan, kabinetan, IKSan sartutako tabernetan eta instalazioen eta hegalen garbiketarako kontsumitutakoa da.

Uraren adierazleek bilakaera aldakorra izan dute 2019tik. Kabinetako ur-kontsumoa, erabiltzaile bakoitzeko, handitu egin da, bai eta hondartzazale bakoitzeko kanpoko dutxetako ur-kontsumoa ere. Hala ere, urteko guztizko ur-kontsumoa murriztu egin da.

- Ur-kontsumoa kanpoko dutxetan: jarraipena ematen dio azken urteetako goranzko joerari:



- Ur-kontsumoa guztira:



- **Kabinetako ur-kontsumoa:** Erabiltzaile bakoitzeko kontsumoaren adierazleak nabarmen egin du gora 2022an, 2019arekin alderatuta, baina kabinetako ur-kontsumoaren parametroa, kabinako erabiltzaile kopurua kontuan hartu gabe, murriztu egin da, hau da, adierazlearen igoera udan kabinak erabili dituzten pertsonak nabarmen gutxiago izatearen ondorio da nagusiki. Kontuan izan behar da kabinetako ur-kontsumoaren zati handi bat kabinak garbitzeko erabiltzen dela, bereziki COVID-19aren pandemiaren ondoren, eta kontsumo hori ez dago hain lotuta erabiltzaile kopuruarekin.



Erabiltzaileen ingurumen-portaera hobetzeko aholkuak honako hauek dira:

- Edateko urarekin ez jolastea; itsasoko ura erabil daiteke horretarako.
- Kanpoko dutxak azken garbiketarako bakarrik erabiltzea, eta freskatzeko itsasoko ura erabiltzea.
- Kabinetan behar baino gehiago ez luzatzea dutxa.

UR-KONTSUMOAREN INGURUMEN-INPAKTUA

Hondartzetako edateko uraren kontsumoak hainbat inpaktu dakartza berarekin:

- Sorburutik (Añarbeko urtegia) garraiatzeak dakarren energia-kontsumoa.
- Produktu kimikoak kontsumitzea, iturrietako edateko ura kalitatekoa izan dadin. Ez da ahaztu behar dutxetako eta txorrotetako ura edateko modukoa dela, baina halaxe da zoruak garbitzeko erabiltzen dena, komunean erabiltzen dena eta jolasteko eta freskatzeko erabiltzen dena ere, itsasokoa erabili beharrean sarekoa erabiltzen bada.

URAREN INGURUKO HELBURUAK

IKSaren estrategiak ez du lehentasuntzat jotzen ur-kontsumoa aurrezte; beraz, ez dago helbururik ingurumen-alderdi horretarako, eta hobekuntza-ekintzarik ere ez da programatzen.

Nolanahi ere, horrek ingurumen-inpaktua ere badakarrela kontuan hartuta, hondartzetako ur-kontsumoa kontrolatzen da, adierazle hauen bidez:

- Sareko ur-kontsumoa urte/erabiltzaile (l/erabiltzaile)
- Kanpoko dutxetako ur-kontsumoa udan/udako erabiltzaileak (l/erabiltzaile)
- Kabinetako ur-kontsumoa udan/udako erabiltzaileak (l/erabiltzaile)



2.3.- ENERGIA


Hondartzetako energia-kontsumoaren barruan, kabinetako elektrizitatearena eta gas naturalarena sartzen da; izan ere, energia hori beharrezkoa da argiztapenerako, motorretarako (igogailuak, aireztapena, sarrerako tornuak, ordenagailuak), ur sanitarioa berotzeko eta antzekoetarako.

Kontsumo horren zati bat instalazioen funtzionamenduari eta mantentze-lanei dagokie, baina beste zati txikiago bat erabiltzaileen arabera aldatzen da. Bi eremuetan hobekuntzak egin daitezke; alde batetik, instalazioan ekipo eraginkorragoak eta kontrolagarriagoak jarritz, eta, bestetik, erabilera-jardunbide egokiak ezarriz, bai kabinetako arretaren arduradunen artean, bai erabiltzaileen artean.


Kabinen erabiltzaileen gas-kontsumoaren adierazleak behera egin du, 2019arekin alderatuta, eta gas-kontsumoak ere behera egin du zenbaki absolutuetan. Urteko gas-kontsumoa %40 baino gehiago murriztu da, zeren Kontxako eta Ondarretako kabinak itxita egon dira udatik kanpoko hilabeteetan, obrak direla eta. Erabiltzaileei dagokien adierazle zuzendua ere %43 baino gehiago jaitsi da.

Bestalde, denboran pixka bat atzera eginez gero, ikusiko dugu gasaren kontsumoa 2016an eta 2017an zegoenaren antzekoa dela; beraz, ondoriozta daiteke amaitu dela 2018ko eta 2019ko goranzko joera.

- Gas-kontsumoa:



- Elektrizitate-kontsumoa: guztizko elektrizitate-kontsumoa nabarmen jaitsi da 2022an, esan bezala obren ondorioz kabinak itxita egon direlako urtearen zati handi batean; beraz, oraingoa komenigarriagoa da kontsumo elektrikoa udako hilabeteetan soilik kontuan hartzea.



Udako kontsumoa nabarmen txikiagoa izan da aurreko urteetan baino, eta, beraz, adierazle horren beheranzko joera berresten da.

- Gas naturalaren eta elektrizitatearen kontsumoa: kabinetako energia-kontsumoaren murrizketa oso esanguratsua da, baina, esan bezala, udatik kanpo kabinak itxita egon izana da horren arrazoietakoa bat.



ENERGIA-KONTSUMOAREN INGURUMEN-INPAKTUA

Energia-kontsumoak, batez ere, energia sortzeko prozesuan du inpaktua, bai jatorrian, bai hondartzetan (gas-errekuntza), eta, neurri txikiagoan, garraioan. Horren arrazoia da:

- Lehengai ez-berriztagarrien kontsumoa
- Atmosferaren kutsadura
- Klima-aldaketa
- Lurzorua eta ura kutsatzeko arriskua
- Garraio-lineen inpaktuak

ENERGIA ARLOAN 2022RAKO AURREIKUSITAKO HELBURUAK

2022ko programak helburu, xede eta ekintza hauek biltzen zituen ingurumen-alderdi honetarako:

- 1. Helburua: Hondartzetako energia-kontsumoaren berotegi-efektuko gas-isuriak % 40 murriztea 2030ean, 2017arekin alderatuta.
- 1.1 xedea: Hondartzetako energia-kontsumoaren berotegi-efektuko gas-isuriak % 9 murriztea, 2019. urtearekin alderatuta.
 - 1.1.1 Zurriola hondartzako ZM eraikinean kabinetan eta zerbitzuetan autokontsumorako plaka fotovoltaikoak instalatzeko proiektua gauzatzea
 - 1.1.2. Kontxako eta Ondarretako kabinak eraberritzeko obrak egitea, ur-eroanbideen isolamendua hobetzeko jarduketak barne.



2022KO LORPENAK ENERGIA ARLOAN

Plaka fotovoltaikoak instalatzeko proiektua onetsita dago jada, baina obra ZMko eraikina berriro ondoren egingo da, eta obra hori 2023. urtera arte atzeratu da. Dagoeneko egin dira Kontxako eta Ondarretako kabinetako obrak.

Baina ez da lortu kabinetako erabiltzaile bakoitzeko CO2 isuriak murriztea, adierazle horrek gora egin baitu. Horren arrazoa izan liteke kabinen erabiltzaileak nabarmen gutxitu direla eta pandemiaren ondoren kabinak gehiago garbitu direla.

Helburua: gas naturalaren kontsumoaren ondoriozko urteko CO2 isuriak % 9 murriztea kabinetako erabiltzaile bakoitzeko (kg/urte/erabiltzaile), 2019. urtearekin alderatuta			
2019	2022	Bilakaera	Bete da?
632,51	475,04	-%24,9	Bai

Adierazle horrek epe luzera zer bilakaera izan duen ikusita, hau da, kontuan hartuta hondartzetan energia-kontsumoaren berotegi-efektuko gasen isuriak %40 murritu behar direla 2030erako 2017arekin alderatuta, esan dezakegu bilakaera hori ez dela ona, hau da, adierazlea soilik %4 gutxitu da, eta oso urruti dago oraindik helburu bezala markatua dagoen %40 hori.

Helburua: gas naturalaren kontsumoaren ondoriozko urteko CO2 isuriak % 40 murriztea kabinetako erabiltzaile bakoitzeko (kg/urte/erabiltzaile), 2017. urtearekin alderatuta.		
2017	2022	Bilakaera
495,51	475,04	-%4,13

2023RAKO PROGRAMAZIOA

2023rako programak helburu, xede eta ekintza hauek biltzen ditu (iazko berberak; izan ere, ez zen jarri plaka fotovoltaikorik, eta Kontxako kabinak berritzeko lanak 2023ko udaberrian amaituko dira):

- 1. helburua: Hondartzetako energia-kontsumoaren berotegi-efektuko gas-isuriak %40 murriztea 2030ean, 2017arekin alderatuta.
- 1.1 xedea: Kabinetako gas naturalaren kontsumoak dakartzan berotegi-efektuko gasen isuriak %4 murriztea, gutxienez, 2023rako.
 - 1.1.1 Zurriola hondartzako ZM eraikineko kabinetan eta zerbitzuetan autokontsumorako plaka fotovoltaikoak instalatzeko proiektua.
 - 1.1.2. Kontxako eta Ondarretako kabinak berritzeko obrak egitea, ur-eroanbideen isolamendua hobetzeko jarduketak barne.

2.4 INGURUMEN-INFORMAZIOA

Herritarrak jakinaren jartzea eta sentsibilizatzea funtsezkotzat jotzen da IKSaren estrategia berriaren barruan; izan ere, hori da haren helburu nagusietako bat.

- 3. helburua: Herritarrekiko komunikazioa: hondartzetako ingurumen-ziurtagirien balioa nabarmentzea (EMAS eta ISO 14001) eta ingurumenaren arloan sentsibilizatzea.
- 3.1 xedea. Erabiltzaileek ingurumen-ziurtagiriei buruz duten ezagutza hobetzea eta ingurumen-gaietan duten sentsibilizazioa hobetzea. Horretarako, honako ekintza hauek proposatu ziren:

3.1.1. EMAS logotipoa duen bandera jartzea Kontxako hondartzako sarrera nagusiaren ondoan.

3.1.2. Hondakinen prebentzioari eta kudeaketari buruz sentsibilizatzea, monitoreen bidez (ITSASOS kanpainan sartuta).

3.1.3. ITSASOS kanpainari buruzko kartelak jartzea hondartzetan.

Programatutako ekintza guztiak egin dira.

2023ko programan, EMAS logotipoa duen bandera Kontxako hondartzako sarreraren ondoan jartzeaz gain (urtero jartzen da), ITSASOS kanpainari buruzko kartel gehiago jarriko dira hondartzetan, mantendu egingo dira 2022an euri-uren sarean jarritako «Itsasoa hemen hasten da» kartelak, ITSASOS kanpainari buruzko bideo labur bat emango da Dbuseko pantailetan, eta hondartzetan ez erretzeko gomendioari buruzko seinaleak jarriko dira.

Twitter bidez hondartzetan eta itsasoko uraren asteko ikuskapen eta analisisien emaitzen berri ematen jarraituko da.

2.5. BAINATZEKO UREN KALITATEA

Udalak, bainatzeko uraren kalitateari dagokionez, zuzeneko betebeharrak hau dauka: kontrolak eta analisiak egitea, herritarrei emaitzen berri ematea, eta, hala badagokio, beharrezko neurriak hartzea.

Osasunaren eta ingurumenaren kontrola (ikuskapena eta laginak hartzea) Ingurumen Kalitatearen eta Iraunkortasunaren Zerbitzuko Bioaniztasunaren eta Ingurumen Kalitatearen Atalak egiten du urte osoan zehar, eta emaitzak astero jakinarazten dira, hondartzen udal-webgunean eta kabinetako iragarki-taulan.

Era berean, bainu-denboraldiaren amaieran, datuak hondartzen kalitatearen estatuko sisteman (NAYADE) sartzen dira. Sistema hori eskuragarri dago Osasun eta Gizarte Politika Ministerioaren webgunean.

Azkenik, udan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren hondartzen webgunean ere sartu da emaitza, Gipuzkoako gainerako hondartzekin batera.

Aplikatu beharreko legeria bainatzeko uren kalitatearen kudeaketari buruzko 1341/2007 Errege Dekretua da, eta bertan ezartzen dira bete beharreko baldintzak eta parametroak.

Hauek dira azken urteetako emaitzak:

	Puntua	2018	2019	2020	2021	2022
Zurriola	Uliá	✓	✓	✓	✓	✓
	Erdialdea	✓	✓	✓	✓	✓
	Urumea	✓	✓	✓	✓	✓
Kontxa	Nautikoa	✓	✓	✓	✓	✓
	Erdialdea	✓	✓	✓	✓	✓
	Loretopea	✓	✓	✓	✓	✓
Ondarreta	Erdialdea	✓	✓	✓	✓	✓
	Tenisa	✓	✓	✓	✓	✓
Santa Klara uhartea	Erdialdea	✓	✓	✓	✓	✓

✓ Uraren kalitatea bikaina da bainatzeko

2.6. INGURUMEN-KUDEAKETAKO SISTEMAREN HOBEKUNTZAK

Duela urte batzuetatik hona, beste jarduera batzuk ere ari gara egiten:

- **Prestakuntza-hitzaldiak** kontratatutako enpresa nagusietako langileentzat (FCC, BPXport eta Galant). Jakinarazi zitzairen badirela IKS bat, ISO 14001 bat eta EMAS bat, eta kasu bakoitzean eragin zuzenena zer jarraibidek izan dezakeen ere azaldu zitzairen.
- Ingurumeneko Aholku Batzordeari aurkeztea: hondartzen adierazpena urtero aurkezten da batzordean, IKSaren bilakaeraren berri emateko eta, hala badagokio, bertan ordezkaturata dauden gizarte-eragileek egindako iradokizunak edo galderak jasotzeko. Horrela kudeatu izan dira, inoiz, han planteatutako gaiak (su artifizialek bainatzeko uretan eragina izatea, harea toloek okupatzea...).
- Tokiko Gobernu Batzarrari IKSaren garapenaren berri ematea, urteko adierazpen ikuskatua aurkeztuz. Horrela, IKSari buruzko informazioa jaso dutela agerian uzteaz gain, hurrengo urteko adierazpen edo programarako aldaketa-proposamenak edo ekarpenak egin ditzaten eskatzen zaie.

3.- IKS-ARI APLIKATZEKOAK ZAIZKION LEGE- BETEKIZUNAK ETA ERAKUNDEAK BERE GAIN HARTUTAKO BESTE ESKAKIZUN BATZUK

IKSaren barruan badago metodo bat hondartzetako operazioei aplikatu beharreko legeria betetzen dela egiaztatzeko eta ziurtatzeko, bai eta urtean zehar nahitaez bete beharreko zer beste betekizun agertzen diren detektatzeko ere.

Hona hemen erakundeak IKSaren irismenaren barruan bete behar dituen baldintza nagusiak:

Ingurumen- alderdia	Legezko betekizunak
Hondakinak	<p>Hiri-hondakinen kudeaketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Birziklatze- edo balorizazio-sistema bat ezartzea, edo lehendik dagoen batean parte hartzea • Gaikako bilketa ezartzea eta ontzien erabileraren murrizketa modu aktiboan bultzatzea. <p>Hondakin arriskutsuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hondakin arriskutsuen ekoizle txikien erregistrotik salbuestea • Hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimendu bati ematea. <p>Hondakin ez-arriskutsuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hondakinak kudeatzaile baimendu bati entregatzea kasu bakoitzean (sanitarioak, EEHak, elektrikoak eta elektronikoak...) <p>Honako hauek behar bezala kudeatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hondartzetan bildutako hondakin sanitarioak edo antzekoak (xiringak) - Instalazioetan sortutako hondakin elektrikoak eta elektronikoak - Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak, kabinak, sarbideak eta abar birmoldatzeko obra txikietan sortuak. <p>Araudia: 22/2011 Legea, 2011ko uztailaren 29koa, Hondakinei buruzkoa. 1988ko urtarrilaren 30eko 833/88 ED eta 1997ko ekainaren 20ko 952/97 ED (aurrekoa aldatzen du). 49/2009 Dekretua, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena. 106/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa. 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa. 21/2015 Dekretua, martxoaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeari buruzkoa. <i>Hiri hondakinak biltzeko udal-ordenantza</i> <i>Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, plastikozko produktu jakin batzuen ingurumen-inpaktua murrizteari buruzkoa. COM/2018/340 final.</i></p>
Kosta	<p>Kosta Zuzendaritzaren itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzeko urteko baimena (hondartzetako harea).</p> <p>Araudia: 22/1988 Legea, uztailaren 22koa, Kostaldee buruzko 2/2013 Legea eta Kostaldee buruzko Erregelamendu Orokorra onesten duen 876/2014 Errege Dekretua.</p>

Urak	<p>Hondakin-urak isuri aurretik tratatu beharko dira, eta dagokien baimena izan beharko dute; kasu horretan, kabinetatik udal-saneamenduko sarera ponpatu ondoren isurtzen dira. Ponpaketaren hobian lohiak pilatzen dira, eta urtean behin kendu eta Añarbeko hondakin-uren araztegiara eramaten dira.</p> <p>Bainatzeko urak: bainatzeko uraren kalitateari buruzko datuak jakinaraztea organo eskudunari (Ministerioa) eta erabiltzaileei, eta beharrezkoa izanez gero neurriak hartzea (kalitate txarra).</p> <p>Araudia: <i>1341/2007 Errege Dekretua, urriaren 11koa, bainatzeko uren kudeaketari buruzkoa.</i> <i>1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.</i></p>
Hondartzen erabilera	Donostiako hondartzen erabilera eta aprobetxamenduari buruzko Ordenantza
Legionellosia	<p>Ur bero sanitarioaren instalazioen mantentze-lan sanitarioak.</p> <p>Araudia: Ekainaren 21eko 487/2022 Errege Dekretua, legionellosia prebenitzeko eta kontrolatzeko osasun-baldintzak ezartzen dituena.</p>
Atmosferako isuriak	<p>Kabinetako ur sanitario beroko galdarak berrikustea eta mantentzea..</p> <p>Hondartzetan diharduten ibilgailuen azterketa teknikoak (IAT).</p>
Zarata	<p>Hondartzetan aire zabalean lan egiteko makinetan EE etiketa jartzea; erosketa-urtearen arabera aplikatzen zaie.</p> <p>Araudia: <i>37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa</i></p>
Erreferentziak o dokumentu sektorialak	<p>Batzordearen 2019/61 (EB) Erabakia, 2018ko abenduaren 19koa, administrazio publikoaren sektorerako ingurumen-kudeaketako jardunbide onei, ingurumen-portaerako adierazle sektorialeiei eta bikaintasuneko konparazio-parametroei buruzko sektoreko erreferentzia-dokumentuari buruzkoa, 1221/2009 Erregelamenduaren (EE) esparruan, zeina erakundeek ingurumenaren auditoria eta kudeaketarako sistema komunitarioan (EMAS) borondatez parte hartzeari buruzkoa den.</p> <p>Batzordearen 2020/519 (EB) Erabakia, 2020ko apirilaren 3koa, ingurumen-kudeaketako jardunbide onenei buruzko sektoreko erreferentzia-dokumentuari, ingurumen-jokaeren sektore-adierazleei eta bikaintasuneko konparazio-parametroei buruzkoa, hondakinen kudeaketako sektorearentzat, 1221/2009 (EE) Erregelamenduaren esparruan, erakundeek ingurumena kudeatzeko eta ikuskatzeko EBko sisteman borondatez parte hartzeari buruzkoan (EMAS).</p> <p>2016/611 (EB) Erabakia, Batzordearena, 2016ko apirilaren 15ekoa, ingurumen-kudeaketako jardunbide onenei buruzko sektoreko erreferentzia-dokumentuari, ingurumen-jokaeren sektore-adierazleei eta bikaintasuneko konparazio-parametroei buruzkoa, hondakinen kudeaketako sektorearentzat, 1221/2009 (EE) Erregelamenduaren esparruan, erakundeek ingurumena kudeatzeko eta ikuskatzeko EBko sisteman borondatez parte hartzeari buruzkoan (EMAS).</p> <p>Oharra: Erreferentziako dokumentu sektorialetako elementuak kontuan hartzen dira ingurumen-ebaluazioan, baina ez da zehaztu beste adierazle espezifiko batzuk egoki diren alderdi esanguratsuei dagokienez, kudeaketa-sistemaren aplikazio-eremua kontuan hartuta (hondartzen kudeaketa integrala).</p>



4.- ERANSKINAK

4.1. INGURUMEN-ALDERDIAK IDENTIFIKATU ETA EBALUATZEKO METODOA

Aldian behin, Donostiako hondartzetako IKSaren arduradunek hondartzetan egiten diren eragiketa guztien alderdi garrantzitsuenak identifikatzen dituzte, hau da, ingurumenean inpakturen bat eragiten dutenak, eta beste inpakturik agertu den aztertzen dute. Ondoren, identifikatutako guztiak ebaluatzen dira, eta esanguratsuak hautatzen; horietan jarriko da ahalegin guztia, haien eragina murrizteko.

Alderdiak identifikatzean, batetik, hondartzetan ematen diren zerbitzuak eta jarduerak hartzen dira kontuan, eta, bestetik, horiek eragin ditzaketen zuzeneko edo zeharkako inpaktuak. Horien barruan, zuzeneko alderdizat hartzen dira erakundeak kontrolatzen dituenak, eta zeharkakoak, berriz, erabat kontrolatzen ez dituenak.

Horien barruan, zuzeneko alderdizat hartzen dira erakundeak kontrolatzen dituenak, eta zeharkakoak, berriz, erabat kontrolatzen ez dituenak.

Zuzeneko alderdiak	Ohiko eta ezohiko egoerak Istripuak edo larrialdiak	Ohiko eta ezohiko egoerak GM= Gertatzeko probabilitatea x Ondorioen larritasuna
Zeharkako alderdiak		GM= Eragin maila x Hobetzeko aukera

Alderdi bat esanguratsua den ala ez zehazteko, garrantzi maila (GM) ezartzen da; hori, kasuaren arabera, honela kalkulatzen da:

	Garrantzi maila	
>6	HANDIA	Alderdi esanguratsua
2, 3, 4	ERTAINA	Alderdi ez-esanguratsua
1	TXIKIA	

Urteko programan alderdi esanguratsu horiei buruzko ekintzak sartu nahi dira, haien portaera hobetzen eta ingurunean eragiten duten inpaktua murrizten laguntzeko.


4.2. ADIERAZLEAK KALKULATZEKO ALDERDI METODOLOGIKOA

Hondartzetako erabiltzaile kopurua: hondartzen urte guztiko okupazio-bolumena zenbatesten da, hainbat faktore kontuan hartuta: meteorologia (egun eguzkitsua, lainotsua edo euritsua), hondartzaren azalera eta denboraldia (altua edo udakoa, ertaina eta baxua). Horretarako, AEMETen plubiometriari, intsolazioari eta hodeiei buruzko datuak lortzen dira.

Kontabilizatutako erabiltzaile bakoitza hondartzako sarrera edo egonaldi bati dagokio.

Bestalde, energia-kontsumoetan, kabinetako erabiltzaileen kopurua bakarrik hartzen da kontuan, bertan kontsumitzen baita erregistratutako energia.

Horietan, sarrera tornu bide kontrolatzeko sistema bat dago, erabiltzaile kopuru zehatza ematen diguna.



Egindako kalkuluen eta tornuko datuen arabera, pertsona hauek izan direla kalkulatu da:

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Hondartzako erabiltzaile kopurua udan	2.588.125	3.065.350	3.368.350	3.285.025	2.769.925	3.345.625
Hondartzako erabiltzaile kopurua urtean	2.723.269	3.189.047	3.481.081	3.372.272	2.881.920	3.436.432
Kabinetako erabiltzaile kopurua urtean	139.418	164.109	162.403	16.085	57.465	82.754

Hondartzen azalera, guztira: 202.000 m². Ez dira sartu EMASen Erregelamenduan aipatutako biodibertsitate-adierazleak; izan ere, hondartza horien ingurunea hain da hiritarra eta antropizatua, non egoera horrek eragin handiagoa baitu hondartza-ingurunekeo biodibertsitatean, hondartzetan ematen diren zerbitzuek baino. Horregatik, hondartzen ingurumen-adierazpen honetan ez da kalkulatu biodibertsitate-adierazlerik.

Hondartzen kudeaketan ez da materialik kontsumitzen.

4.3. IKS-AREN INGURUMEN-PORTAERAREN BESTE ADIERAZLE BATZUK

ERAKUNDEKO LANGILE KOPURUA

Langile kopurua aldakorra da, eta urteko gainerako egunetan baino handiagoa da bainu garaian (ekainaren 1etik irailaren 30era). Batez beste **45 langile** kalkulatu dira.

HONDAKINAK:

	2018	2019	2020	2021	2022
Hondakinak guztira urteko (T)*	754,78	713,55	346,80	720,49	595,99
Hondakinak guztira, urte/erabiltzaile (kg/erab.)	0,237	0,205	0,103	0,250	0,173
Zakarrontzietan gaika jasotako hondakinak (T) udan	57,22	72,79	46,68	27,44	34,64
Zakarrontzietan gaika jaso gabeko hondakinak (T) udan	341,58	294,46	191,30	238,07	266,04
Ontzi-hondakinak (T)	56,34	71,01	49,62	24,20	37,51
Hondakin organikoak (T)	-	1,35	9,98	0,66	1,36
Hondakinak: papera eta kartoia (T)	0,29	0,16	0	1,49	0,94
Hondakinak: beira (T)	0,59	0,27	0	1,09	4,27
Zura urteko (T)	127,11	128,11	47,22	119,7	66,1
Birziklatze-tasa hondartzetako zakarrontzietan (%)	31,7	36,6	27,8	48,5	60,83
Lohiak (T)		19,86	19,86	39,06	6,32
Hondakinak guztira (T)/langile	16,77	15,86	7,71	16,01	13,24
Hondakin arriskutsuak (T)	0,42	0,10	0,14	0,18	0,13
Hondakin arriskutsuak (T)/langile	0,0093	0,0022	0,0031	0,0041	0,0030

*Taulan agertzen diren urteko hondakin guztien artean (t) zur-frakzioak eta kabinetako lohiak daude; izan ere, hondakin horien kudeaketak IKSaren portaera ona islatzen du, bildutako hondakin guztiak birziklatzea lehenesten baitu, eta zuraren kasuan, balorizazio energetikoa.

Hondartzetako jardueran sortutako **hondakin arriskutsuak** kabinak eta hegalak mantentzeko erabiltzen diren pintura-hondarrak eta -potoak dira, bai eta hondartzetan lan egiten duten ibilgailuak (hondakinak biltzea, joan-etorriak egitea) mantentzeko erabiltzen direnak ere.

Algak kostaldeko eta hondartzako dinamikaren zati dira; horregatik, nahiz eta batzuetan kentzen diren, erabiltzaile batzuen kexengatik, ez dira hondakintzat hartzen IKSan.

Bestalde, kabinetako hondakin-urak saneamendu-sarea baino baxuago daudenez, kubo batean pilatzen dira, sarera ponpatzeko. Bertan, lokatzak edo lohiak metatzen dira eta urtero husten dira gero, hondakin-uren araztegia tratatzeko.



URA

	2018	2019	2020	2021	2022
Ur-kontsumoa guztira, urteko (m3)	61.923	53.557	34.617	40.439	49.592
Ur-kontsumoa guztira, urteko eta langileko (m3)	1376	1190	769	899	1102
Ur-kontsumoa urteko (l) eta hondartzetako erabiltzaileko	19,42	15,38	10,27	14,03	14,43
Kanpoko dutxetako ur-kontsumoa udan, erabiltzaileko (l/erab.)	8,33	5,77	4,85	5,10	6,46
Kabinetako ur-kontsumoa udan, erabiltzaileko (l/erab.)	134,56	113,45	763,24	294,65	177,73

ENERGIA: ARGINDARRA

	2018	2019	2020	2021	2022
Argindar kontsumoa urtean (MWh)	96,881	97,738	59,528	96,354	74.677
Argindar kontsumoa urtean (MWh), langileko	2,15	2,17	1,32	2,14	1,66
Energia berriztagarrien kontsumoa (MWh)	96,881	97,738	59,528	96,354	74.677

CO2 ISURIAK ATMOSFERARA

	2018	2019	2020	2021	2022
BEG isuriak (T CO2 e) urteko	101	103	37	59	59
BEG isuriak (T CO2 e) urteko eta langileko	2,25	2,29	0,83	1,31	1,30
BEG isuriak (Kg CO2 e) urteko eta kabinetako erabiltzaileko	0,62	0,63	2,32	1,03	0,71

Berotegi-efektuko gasen isuriak kalkulatzeko, hondartzetako kabinetako gas-kontsumoak hartzen dira kontuan (kontsumoa m3 x TJ/n m3 x tCO2/tJ bihurketa-faktorea)

4.4. 2023KO PROGRAMA:

COVID-19ak eragindako pandemia amaitu denez, aurreikusten dugu denboraldi honetan hondartzak lehengora itzuliko direla. Nolanahi ere, 2023. urterako ekintza ugari programatzea lortu da, eta hobekuntza-helburu batzuk jarri dira, 2019. urtea erreferentziatzat hartuta (izan ere, 2020a eta 2021a ez dira esanguratsutzat jotzen, lortutako datuak interpretatzea zaila baita):

2023 URTEKO INGURUMEN PROGRAMA						KRONOGRAMA											
		Depart.	Arduradun	Aurrekontua	Adierazlea	U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A
Helburu 1	Hondartzetako energia-kontsumoaren berotegi-efektuko gas-isuriak % 40 murriztea 2030ean, 2017arekin alderatuta.																
Xede 1.1	Kabinetako gas naturalaren kontsumoak dakartzan berotegi-efektuko gasen isuriak %3<2022 % 12 murriztea, gutxienez, 2023rako.																
1.1.1	Zurriola hondartzako ZM eraikineko kabinetan eta zerbitzuetan autokontsumorako plaka fotovoltaikoak instalatzeko proiektuaren exekuzioa.		M. Lasa y A. Iraola	18.179,78 €													
1.1.2	Kontxako eta Ondaretako kabinak berritzeko obrak egitea, ur-eroanbideen isolamendua hobetzeko jarduketak barne.		A. Iraola	Kontabilizatu gabe, erreforma proiektuan bameratua.													

2023 URTEKO INGURUMEN-PROGRAMA					KRONOGRAMA											
					U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A
Helburu 2	Hondartzetako hondakinen %80 gaika jasotzea 2030erako.															
Xede 2.1	Hondartzetan hondakinen gaikako bilketa areagotzea				%5>2022											
2.1.1	Hiriko hondakinei buruzko ITSASOS kanpaina, zeinean hondartzak eremu garrantzitsu gisa sartuko baitira (hondakinei buruzko kartelak, Dbus pantailetako bideo laburrak, «Hemen itsasoa hasten da» plakak mantentzea, hiriko termometroetan bideotxoak, eta abar)		A. Iraola	2.1.2., 3.1.1., 3.1.2. eta 3.1.4.-ren batura												
2.1.2	Kerik gabeko hondartzak: Hiriko hondartzetan ez erretzeko gomendioa. Seinaleak ere jarriko dira (ITSASOS kanpainaren baruan).		A. Iraola	(3.1.5)												
Helburu 3	Herritarrekiko komunikazioa: hondartzetako ingurumen-ziurtagirien balioa nabarmentzea (EMAS eta ISO 14001) eta ingurumenaren arloan sentsibilizatzea.															
Xede 3.1	Erabiltzaileek ingurumen-ziurtagiriei buruz duten ezagutza hobetzea eta ingurumen-gaietan duten sentsibilizazioa hobetzea.				2022 hobe											
3.1.1	ITSASOS kanpainari buruzko kartel berriak jartzea hondartzetan.		A. Iraola	3.453,81 €												
3.1.2	EMAS logotipoa duen bandera jartzea Kontxako hondartzako sarrera nagusiaren ondoan.		A. Iraola	512,08 €												
3.1.3	Mantendu egingo dira 2022an euri-uren sarean jarritako «Itsasoa hemen hasten da» kartelak		A. Iraola	0 €												
3.1.4	ITSASOS kanpainari buruzko bideo labur bat emango da Dbuseko pantailetan.		A. Iraola	5.372,40 €												
3.1.5	Hondartzetan ez erretzeko gomendioari buruzko seinaleak jarriko dira.		A. Iraola	4.259,20 €												

5.- ERAKUNDEAREN BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

Erakundeak interesdunen komunikazioa eta parte-hartzea sustatzen ditu, honako hauen bidez:

- Ingurumen-adierazpena herritar guztien eskura dago udal-webgunean, baita hondartzetako instalazioetan ere.
- Iradokizunen eta kexen postontzia jarri da kabinetan, eta kexa eta iradokizunen atala udalaren webgunean.
- Adierazpena Ingurumeneko Aholku Batzordean aurkeztuko da (hiriko hainbat gizarte-eragile daude ordezkaturata batzorde horretan).

Erakundeak, Udaleko ingurumen-atala den aldetik, jarduketa ugari egiten ditu hiriaren ingurumen-kalitatea hobetzen laguntzeko. Hona hemen adibide batzuk:

- Ingurumen-jasangarritasunarekin lotutako planak, programak eta proiektuak garatzea eta kudeatzea (Tokiko Agenda 21, Klimaren aldeko Alkateen Ituna, Klima-aldaketara Egokitzeko Plana, Klima Estrategia, eta abar)
- Udalean zein udalerrian hondakin gutxiago sortzeko proiektuak eta planak kudeatzea: Donostiatruk (bigarren eskuko azoka txikia) antolatzea, kirol-ekitaldietan hondakinak murriztea eta berrerabiltzea sustatzeko, eta abar.
- Donostiako Elikadura Estrategia garatzea: elikagaiak alferrik ez galtzea, osasuna sustatzea, tokiko ekoizpena eta kontsumoa sustatzea
- Udal-lurrak basoberritzea espezie aloktonoak landatuz.
- Udalerriko eta udaleko berotegi-efektuko gasen isurien jarraipena egitea.
- Klima-aldaketari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea.
- Udal-eraikinetan energia-kontsumoak monitorizatzea eta horien jarraipena egitea, eta energia aurrezteko sistemak instalatzea.
- DSS 2050 ekintza-plana garatzea, klima-larrialdiaren egoera deklaratzeko eta epe laburrean zer ekintza garatu hautatzea.
- Klima-aldaketaren barne-plana diseinatzea eta ezartzea, mugikortasunaren, energiaren eta hondakinen arloetan aurretiko diagnostikoa eginda. Informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak garatzea.
- Jasangarritasunaren eta Klimaren Behatokia eratzea.
- Eraikinen Eraginkortasun Energetikoaren Ordenantza egitea.
- Artikutzako presa kentzeko proiektua egitea eta gauzatzea.
- Artifizializazioa ezabatzea eta ibaiertzeko landaredia hobetzea eremu degradatuetan (Europako proiektuei lotuta).
- Eta abar.

6.- INGURUMEN-EGIAZTAPENA

Ingurumenaren gaineko erantzukizuna betetzeko, erakundeak bere gain hartzen du gizartearekin eta bere jardueretan interesa duten pertsona-taldeekin hitz egiteko ardura. Horrela, herritarren galderak eta iradokizunak jasotzeaz, baloratzeaz eta erantzuteaz gain, Ingurumeneko Aholku Batzordeari hasierako urteko adierazpenaren berri ematen zaio, batzorde horretan hiriko hainbat elkarte baitaude ordezkatuta. Batzorde horretako kideek adierazpenaren edukiari buruzko iradokizunak edota galderak egin ditzakete. Horiek kontuan hartuko dira, eta, ondoren, Batzordeak onartutzat joko da adierazpena.

Era berean, Zuzendaritzak Udalaren webgunearen bidez helaraziko die adierazpen hau interesdun guztiei, eta jendaurrean jarrita egongo da udal-bulegoetan (Hiri Zerbitzuen eta Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuen bulegoetan).

Ingurumen-adierazpena urtean behin egingo da. Beraz, hurrengo 2023. urteari buruzkoa izango da, eta 2024. urteko lehen seihilekoan argitaratuko da.

Adierazpenaren egilea:




Alaitz Iraola Garin
Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren arduraduna

Aprobada por:



Josu Benaito
IKSaren zuzendarikidea
Osasun eta Ingurumeneko zuzendaria



José Ramón Renilla
IKSaren zuzendarikidea
Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zuzendaria

LRQA ESPAÑA SLUK baliozkotutako ingurumen-adierazpena
Egiaztapen-zenbakia: ES-V-0015
Egiaztapenaren teknikaria: Esmeralda Citores
Adierazpena sinatzen duen LRQAEn ordezkarria: Olga Rivas

INGURUMEN-ADIERAZPEN HAU BALIOZKOTZAT JOKO DA EGIAZTAPEN-ADIERAZPENAREKIN BATERA BADOA